

2021 MAI. 24

## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENARI BURUZKO MOZIOA

SARRERA	IRTEERA
Zk. A/21-684	Zk. ✓

Gaur egun, Larrialdi Klimatikoak daukagun mehatxurik handienetako bat da. Beraz, erantzun azkarra eta klima eta energia politiken eraldaketa eraginkorra eskatzen duen erronka baten aurrean gaude. Erronka honek lan eta ahalegin partekatua eta Euskal Herri neutro batera iristeko ibilbide-orri bat eskatzen du. Horrek guztiak, jakina, gizarte gisa interpelatzen gaitu, eta gure ohituretan zenbait aldaketa eskatzen dizkigu.

Politika publiko guztiek bizi dugun egoerari erantzun behar diote. Erantzun adostua eman behar dugu. Aldez aurretik zehaztutako eta adostutako lurralde estrategia bati erantzuten ez dioten proiektuak garatzea saihestu behar dugu. Esan ere, Araban gure lurraldeak behar duen strategiara egokitzen ez diren energia berriztagarrien proiektuak ugaritzen ari dira azken hilabetetan.

Testuinguru horretan, energia berriztagarriekin eta horien ezarpenarekin lotutako bi eztabaida handiren atarian gaude: Araba Klima 2050 plana Araban, eta, are garrantzitsuagoa, EAEko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS). Beraz, berriztagarrien mapa definitzeko eta adostasunetik abiatuta egiteko tresna gisa balioko duen dokumentuaren eztabaida eta definizioaren aurrean gaude, ingurumenaren babesa eta herritarren interes orokorrak ahaztu gabe.

Horregatik guztiagatik, Aramaioko Udalak:

1. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, larrialdi klimatikoaren testuinguruan, energia berriztagarrien hedapena modu antolatu eta planifikatuan egingo dela bermatzea, herritarren interesak errespetatuz eta lurraldeko ingurumen balioen zaintzarekin bat etorritik.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) onartze prozesua ahalik eta azkarren bideratzea, izapidetze prozesuan ahalik eta kontsentsu politiko, sozial eta instituzional handiena bilatuz.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio energia berriztagarrien inguruko plangintza egiterako orduan, lehenetsi ditzala berriztagarrien hedapen deszentralizatua eta biziki antropizatuak dauden kokalekuak.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LPSa izapidetu bitartean ez dezala aurrera egin ingurumenean eragina izan dezaketen partaidetza publikoko energia berriztagarriko proiektuetan.

